



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2011KO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumenari jarraiki egin dugu txosten hau.

Txostenaren helburua da batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko erabakiaz onartutako Jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea -genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak-, eta bestetik, hobekuntzak proposatzea.

2010eko urriaren 20an, Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu zuzendariaren ofizio bati sarrera eman zaio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean. Aipatutako lege-aurreproiektuaren gainean Emakundek nahitaezko txostena egin dezala eskatzen da ofizio horretan, bigarren jarraibidean ezarritakoarekin bat etorritik.

Aurreproiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzea da. Aurrekontuetan 2011ko ekitaldirako jarduera publikoaren sarrerak eta gastuak jasotzen dira.



Aurreproiektuaren xedea eta arau-maila kontuan hartuta, generoaren araberako eraginari buruzko txostena egin behar zaio aurreproiektuari, lehenengo jarraibideko bigarren idatz-zatian xedatutakoarekin bat.

Horretarako, lehenengo jarraibidearen laugarren eta seigarren idatz-zatietan adierazitakoaren arabera, Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak, arauaren organo sustatzailea den aldetik, Generoaren araberako Eraginaren Txostena egin du, ohiko prozedurari jarraituz. Ondoren, Emakundek txostena egiteko, bidali egin da Lege-aurreproiektuaren zirriborro osagabe batekin batera, non aurrekontu-zenbatekoen izendapenik jasotzen ez den.

Egiaztatu dugu bete direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak. Eragin txostenaren edukiari dagokionez, gogoeta hauek egiten ditugu:

Lehenik eta behin, jakinik zein zaila den horren berezia den arauaren generoaren araberako eragina ebaluatzea, positibotzat jo behar dugu Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako lana. Aurreko ekitaldian artikulatutako lan-prozedurarekin jarraituz, gobernua osatzen duten sail guztiei eskatu die batetik, txantiloï komun baten bidez informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa eman dezatela haien esku-hartze eremuan emakumeen eta gizonen egungo egoerari buruz, eta bestetik, esan dezatela beren aurrekontu-programetan zeintzuk diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzekoak. Hala ere, datozen ekitaldietarako, sailentzako informazio-eskaera eta Emakunderen nahitaezko txostena egiteko eskabidea aurreratzea iradokitzen da, izapide hori behar bezala egiteko asti nahikoa egon dadin.



Bigarrenik, positibotzat baloratu behar dugu eskatutako galdesortak betez genero-eraginaren ebaluazioa egiten lagundu duten sailek egindako ahalegina. Hauek dira sailak:

- Lehendakaritza
- Herrizaingo Saila
- Ekonomia eta Ogasun Saila
- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
- Osasun eta Kontsumo Saila
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Kultura Saila

Aitzitik, ez dakigu ziur Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak genero-eraginaren txostena egiten lagundu duen.

Hala ere, ahaleginak ahalegin, hobekuntza hauek proposatzen ditugu, uste baitugu baliagarriak izango direla genero-eraginaren behin betiko txostena egiteko, bai eta bihar-etzikoak egiteko ere.

- Egoeraren analisiari dagokionez, sailek beren jarduera-eremuei buruz emandako eta aztertutako informazio guztia biltzeko iradokitzen dugu, informazio bateratua eskainiz, datuak bikoiztu gabe, eta batez ere, eremu bakoitzeko desberdintasun esanguratsuenak nabarmenduz, esku-hartzearen behar handiena duten egoerak argiro erakusteko.

Gainera, informazio hori Jarraibideetan ezarritako irizpideen arabera ordenatu behar litzateke, hots, baliabideak baliatu eta kontrolatzea, erabakiguneetan parte hartzea, gizarte-arauak eta balioak, eta eskubideak. Horretarako, ahal den neurrian txantiloia egokitu behar litzateke, sailei irizpide horien arabera informazioa eskatzeko.

Halaber, interesgarria litzateke analisisian bete gabe dauden alderdi batzuk osatzea, esaterako, araua egiteko prozesuan emakumeen eta gizonen partaidetzaren analisiari buruzkoak.

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko aurrekontu-programak, -helburuak eta -ekintzak 1. taulan laburpen gisa jaso eta erantsitako txostenetan zehaztu dituzte sailek. Horri dagokionez, egindako hautaketa berrikusi eta doitzea komeni da, zeren eta horietako batzuk, berez, nekez bideratu daitezke berdintasuna lortzera, eta beste kasu batzuetan, herritar guztientzako programak sartu dira, eta programa horietan ez da partida espezifikorik jasotzen berdintasunerako jarduerak egiteko¹.

Halaber, komenigarria litzateke txantiloian programak bereizteko irizpideak argitzea, hau da, oro har emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programak, emakumeen bereizkeria-egoera espezifikoari aurre egitekoak eta emakume horien arazo espezifikoak arintzekoak bereizteko. Izan ere, baliteke argigarria izatea bereizita jartzea, batetik, administrazioaren jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri orokorrak eta egiturak (berdintasunerako unitateak eta erakundeak, koordinazio-organoak, plangintza, azterlanak, langileak gaikuntza, eraginaren ebaluazioa, kontratazioetako berdintasun-klausulak eta diru-laguntzak ...), eta bestetik,

¹ Besteak beste, VI. Eranskinean sartutako 4115 Farmazia programa, adibidez.

sexuaren araberako egitatezko desberdintasunak murrizteko jarduera edo neurri espezifikoak, 2010eko ekainaren 29an Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean aurreikusitako ildoari jarraituz.

- Genero-eraginaren balorazioaren atalean, ahalegina egin behar litzateke datu erabilgarriekin batera, bederen hurbilketa kuantitatibo bat egiteko, sail bakoitzean eta oro har Jaurlaritzan, berdintasuna lortzeko bideratutako programen eta aurrekontuko diru-izendapenen ehunekoaren gainean.
- Azkenik, Eragin Txostenaren 3. galdesortan adierazten den bezala, sailek aurrekontu-programetako ekintza eta helburu bakoitzaren kostu ekonomikoa laburtzerik ez dutela ikusirik, beharrezkoa da neurriren bat hartzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa betetzen aurrera egin ahal izateko. Izan ere, Autonomiako Administrazioak, besteak beste, aurrekontuetan urtero ezarri eta espezifikatu beharko ditu zein baliabide ekonomiko behar dituen Lege honetan aurreikusitako egitekoak betetzeko eta aurreikusitako neurriak gauzatzeko.

Horren haritik, adierazi nahi genuke Emakunden bagabiltzala esperientzia jakin batean, zeinari esker aurrera egingo dugun lan-metodologia bat zehazten, aukera emateko datozen aurrekontu-ekitaldietan zehatzago, progresiboki eta egonkorrago aztertzeke zenbaterainoko sentsibilitatea dagoen aurrekontu-programetan eta horiek zelako eragina duten emakumeen eta gizonen egoeran.

Aipatu esperientzia abian jartzeko, arloan aditu direnen aholkularitza eta laguntza teknikoa daukagu, baita elkarlanean aritzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren, Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kultura Sailaren konpromisoa ere, sail horiek gabe ezinezkoa bailitzateke esperientzia hau garatu eta ezartzea. Hala ere, ekimenak Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-jardueran eragin esanguratsua eta globala izan dezan, funtsezkoa litzateke sail guztien partaidetza eta laguntza, aurrekontuen alorrean eskumenak dituen sailarena, bereziki.

Bestalde, lege-aurreproiektuaren idazkerari dagokionez, oro har hizkera ez-sexista erabili da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Dena den, gaztelaniaz soilik maskulinoz aipatutako termino batzuk berrikusi eta egokitu egin behar lirateke, hala nola, “los funcionarios”, “empresarios individuales y autónomos”, “el titular”, “los suplentes”, “los adquirentes” ...

Azkenik, gogorarazi nahi dizuegu txosten honetan jasotako proposamenak aztertuta, edo aurreproiektuan egindako aldaketen ondorioz, Generoaren Araberako Eragina Ebaluatzeko Behin-behineko Txostenean aldaketak eginez gero, erakunde honi jakinarazi behar dizkiozuela, eta, behar izanez gero, txostenaren behin betiko bertsioa bidali beharko duzuela, EHAAn argitaratzeko aurreikusita dagoen eguna baino lehen. Hala egiten ez bada, argitalpenaren egunean behin-behineko txostena zuzenean behin betiko bihurtu dela esan nahiko du. Bigarren jarraibidea betetzea da helburua, alegia: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak generoaren araberako eragina ebaluatzeko txostenen jarraipena egin behar du, eta horien barne erregistroaz arduratu, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mendeko edo hari lotutako sail, erakunde eta entitateek txostenetara jotzeko aukera izan dezaten.